

OPARI BATEN ITURBURUA

Jon Unanue López,
Larramendi Bazkuneko lehendakaria

Baztarrikaren akuilua

Patxi Baztarrika izan zen, lehenik eta behin eta gauzak argi eta garbi esatekotan, Atzoko Andoain eta andoaindarrak izeneko honetan gauzatu den egitasmoaren errudun nagusia: 1996. urtean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak "Ahoz aho, belaunaz belaun" izeneko erakusketa, euskara belaunaldiz belaunaldi biziberritzeari buruzkoa, ekarri zuen Andoainera, eta Udolari erakusketa hura girotzeko eskakizuna egin zioten: antola zezala "zeozer" erakusketaren gaiarekin zerikusia izango zuena. Patxi Baztarrikaren gogoan ez zen berria herriko zenbait "ilustrekin" hitzaldi eta solasaldi batzuk antolatzeko asmoa, Andoainen «Orria» argitaratzen zen garaitik bai baitzekien herritar batzuen hizketarako sena eta trebezia zenbaterainokoa zen. Beraz, hor bildu zuen andoaindar talde bat eta eskolaz eskola banaka ala binaka jarri zituen gazteei garai bateko Andoaingo kontuak, bizipenak eta ateraldiak aditzera emateko. Ez zebilen oker Baztarrika: saioak oihartzun handia izan zuen.

Geroztik, setatu egin zitzaion Baztarrikari -eta nola gainera, ataundarra baita-, eskoletan egindako hitzaldien grabazioekin argitalpenen bat egin behar zela, material hura guztia ez zegoe-la galtzen uzterik. Niri lauzpabost aldiz, gutxienez, esan zidan: "Jon, horrekin zoezer egin behar diagu, liburuxoren bat edo zoezer... Emaizkiok buelta batzuk". Nik berriz -orain ezin gezurrik esan- luzerako jartzen nion eginkizuna, "gingo genuela, bai, zoezer eta egoteko lasai". Baina pazientzia bukatu zitzaion Baztarrikari eta, noizbait, esan zidan "Nik uste Larramendi Bazkunaren eta Andoaingo Udalaren artean gauza txukuna egin dezakegula; astebe baino lehen emaidak erantzuna". Ez nuen Baztarrika asbeteren buruan ezezkorik entzuteko prest ikusi, eta erantzun beharraren estuasun horretan jabetu nintzen horri erantzuna emango zionik aspaldi genuenez Larramendi Bazkunean.

Larrañagaren ardoa

Ardotan Errioxakoa dena, kazetaritzan Jone Larrañaga: berme osoa. Aukera huraxe etorri zitzaidan gogora, lan horri heltzeko inor aproposik egon ezker, hura Jone Larrañaga zelakoan, maiz hitz egin baitzidan berak, antzeko asmoak burutu beharraz herrian Aiurriri buruz jarduten genuenean. Banekien oso gogoko gerta zekiokela, eta banekien gauza garrantzitsua: goa: saiatuagorik ez nuela aurkituko eta, aukeran, bere kazetaritza eta sormen mailako kazetariak gutxi. Baina ez nuen ziur baiezkerik espero, ez baita lanak erraz hartzen dituen horietakoa; eman dezakeenaren arabera neurtzen du erantzuna, eta eginkizuna oso gogoko izan arren erronka ez zen nolana hikoia. Bi alderdi zituen mandatuak: bata, asmoa finkatzea eta, bigarrena, lana egitea. Larrañagak 1996. urteko zinta haiek entzun nahi izan zituen, berak egin behar zuen proposamenaren abiapuntu; eta zinta haiek izan ziren amua; behin entzun ezker ez zuen hori askatuko amaitu duen arte hamaika kontu, istorio, gertakari, ateraldi eta pasadizu paperera eramateko lana. Proposamenarekin etorri zitzaigun: gerra zibilaren aurreko belaunaldietako herritarrek osaturiko taldea antolatzea, izaera eta ikuspegiz ahalik eta zabalena eta oparoena, hizketagai zerrenda bat onartzea eta mahai baten inguruan esertzea hilean behin

gai jakin bat jorrazteko; horren guztiaren ondorioz hilean behin aldizkaritza argitaratuko litzateke hil horretan landutako gaiari buruzkoa. Mamian hori izan zen proposamena, eta, beraz, mandatuaren lehenengo zatia bete zuen Larrañagak. Bigarren zatia, alegia, nork egingo zituen lan horiek guztiak, azkar erabaki genuen Larrañagak, Baztarrikak eta hirurok proiektua orrazteko egin genuen bileran: zuzendaritza lanak Jone Larrañagak egingo zituen, baina idazlaritza lanak egiteko beste kazetari batzuen laguntza hitzartuko zuen.

Hori guztia loturik, nork argitaratu eta diruaren arazoa konpontzea falta...

Andoaingo Udala eskuzabal

Egitasmoa osaturik ikusi genuenean Andoaingo Udaleko Euskara zinegotzi zen Gabino Agudori aurkeztu genion. Larrañagak aurkezturiko proposamena oso gogoko izan zuen, eta Unanuek -nik neronek- azaldu zionean Larramendi Bazkunak argitara zezakeela, baina sosik ez zuela horretarako, luze gabe erabaki zuten Larramendi Bazkunak argitaratzen bazuen Andoaingo Udalak ordainduko zituela gastu guzti-guztiak. Nola egingo genion ba uko horrelako aukerari? Akuilua eta dirua Andoaingo Udalarengandik jaso genuen, beraz.

Amagoia Mujika, Agurtzane Ormaetxea eta Xabier Lasa

Hiru andoaindar gazte horiek osatu dute Jone Larrañagarekin batera Atzoko Andoain eta andoaindarrak aldizkari erredakzio taldea aldizkariaren bigarren urtean. Lehendik ere ezagun ditugu andoaindarrak gisa honetako lanetan: Amagoiak eta Agurtzane Euskaldunon Egunkarian dihardute lanean eta Aiurri aldizkarian laguntzaile izan ditugu. Xabier Lasak, berriz, saiakeren idaztolan frogatu izan du gehien bat gisa honetako lanetarako trebetasuna. Xabier eta Agurtzane, gainera, Bazkunekoak ditugu; etxeko eskulana, beraz. Hiru kazetari horien ahaleginari esker osatu ahal izan dugu Jone Larrañagak hain era bikainean hasitako lana, eta kalitate izpirik galdu gabe; gainera, idazkera berdintsua egiten ahaleginu dira guztiak, zail gertatuko baitzaigu antzematea nork zein idatzi duen.

Maddi Trutxuelo eta Eva García: itxura apala eta duina

Maddik heldu zion Atzoko Andoain eta andoaindarrak aldizkariak paperean hartuko zuen itxura lantzeari eta, Evaren laguntzaz, guztiok ezagutu dugun aldizkari itxuraz eder eta duina osatu zuen, eta bera arduratu zen gainera, Arrasatetik "fitxatu" zuten arte, lehenengo zenbakiak inprentarako prestatzeaz. Utzi gintuenetik, Eva arduratu da hilerok kazetariak idazten zuten testua txukun-txukun maketatu, argazkiak digitalizatu eta den-dena moldiztegirako prest uzteaz. Bi diseinatzaile horiei esker lortu dugu zenbakiro andoaindar eta kanpotar askoren begia ondo baino ederki betetzea.

Eta non dira protagonistak?

Atzoko, gaurko eta biharko zareten andoaindarrak biltzea ez zen lan guztiz erraza izan, 1996. urteko hitzaldietarako osatu zen taldea ezinbestez zabaldu behar baitzen. Jone Larrañagak zerrenda luzea idatzi zuen, zer kontaturik izan zezaketen andoaindarrez osatua, eta batengana eta bestearengana jo zuen proposamenarekin erantzun bila. Askok baiezkua eman zenioten, prest zeudeten zuen iraganaren lekukotasuna eskaintzeko gogoretan bidez, eta gustora egingo zenuten gainera; hilean behineko bileratxo egin eta nahikoa kontu esan ondoren, elkarlanaren emaitza herriari eskaini ahal izatea. Asmo polita zirudien: zuek elkarrekin eta zuen garaioek aukera izan, duela urte dextekoko bizimodua eta dagoeneko Historia dena gogoan hartzeko, eta, garrantzitsuagoa, gazteagoi eta oso gazte direnei orain hain urrun gelditzen diren ez hain aspaldiko bizikera, ohitura eta eginbeharrak erakusteko.

Baina izan zen ere, arrazoi batetik ala besteagatik, ezezkoa eman zigun hamaika andoaindar ere, eta horrek, jakina, hasiera batean etsipen apur bat sortu zigun, zuen aurreneko saioek izandako arrakastak berehala uxatu zuena. Hasiera-hasieratik edo geroxeago atzoko andoaindarraren taldean parte hartu duzuenok herri osoaren bizipenak duin ordezkatzeko lortu duzue, jakin bai baitezue zuen haragitan bizi izandakoa kontatzeaz gain beste etxeetako ere aditzera ematen.

Larrañagak antolatu dizuen ardatz horren inguruan mataza ederra gorpuztu dezue; mataza horrek, ordea, ederra gertatzeaz gain, idatzirik geldituko den agiri gisa, garai baten lekuko gisa, benetako garrantzia dauka, gutxienez bi alderditatik:

- Andoaingo herriari gizaldirik inportanteenetako baten lehen hamarkadetako oroimen bizia eskaini diozuelako,

herriaren bizitzaren alderdi gehienetara iritsiz, zauri larrietako bati buruz ere –Gerra zibilari buruz– hitz eginez, haurtzaro eta gaztaroko bizimodua azalduz. Inoiz ez du bere historian lehenago izan Andoainek garai jakin bat betekozion gisa honetako taldeko herri oroimenik. Beraz, benetan opari ederra egin diezue zuen herriari eta herritarrei.

- Bestetik, gaurko eta etokizuneko ikerlariak ere zordun dituzue. Zuen kontakizun eta bizipenen apaltasunetik lanerako informazio iturri ezin aberatsagoa eskaini diezue hainbat alderditan hainbat alorretako ikerlariei, nor bere eskuko lekukotasunak eskainiz gehienetan agiri idatziaren informazio oinarria baizik ez dutenei. Hori ere balio handiko ekarpena da.

Beraz, bi puntu horien garrantzia azpimarratuz, eskerrak eman nahi dizkizuet Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren ize-nean eman diguzuen laguntzagatik egitasmo hau hezuramitu eta aurrera ateratzeko.

Bukatu aurretik esan beharra daukat, nik behintzat somatu dudala, eta ez da bakarra izango baina, 1996. urteko hitzaldi haietan lan bikaina egin zuen andoaindar bat gure artean egon ez izana oraingo saio honetan. Gaisotasuna tarteko, ez dugu aukerarik izan Joxe Goikoetxearen kontakizun, gertakari eta ateraldiak entzuteko. Hori (guztiok dakizue) galera handia izan da gure argitalpenerako, baina besteok ederki asko bete duzue haren hutsunea. Osa dadila lehenbailehen Joxe Goikoetxea eta izan dezagula aurrerantzean gure asmo berrietan.

Bien bitartean, bejondeigula guztioi opari eder hau!

MASTERRIK ONENA

Jone Larrañaga

Atzoko Andoain eta Andoaindarrak aldizkariko zuzendaria

Atzoko Andoain eta andoaindarrak egiteko enkargua jasotzearekin batera atera ziren mahaiaren gainera dozena erdi gizasemeren izen: Iñaki Arregi, Imanol Egibar, Roke Ansa, Joxe sakristaua, Joxemari Olazabal, Bixente Olano...; horiek denak aurretik ibiliak ziren eskoletan gaur egungo umeei euren gazte garaiko kontuak azaltzen eta ez genuen duda izpirik egin: derrigorrean egon behar zuten haiek gurekin, Andoain eta andoaindarrei buruzko zer kontatu franko bazutela bagenekien eta.

Zerrenda hura luzatu egin behar zen, ordea, eta niri egokitu zitzaidan ardura hori hartzea. Egin nuen hizketa horiekin, galde-tu nuen han eta hemen eta jaso nituen izen batzuk. "Hara, ba Loren Navarrok badu istorio piloa"; "Joxemari Amutxastegi kontulari hutsa da", "Miguel Amasek asko daki herriaz"... Erreferentzia haiek guztiak ondo apuntatu nituen koadernoan eta hogeiren bat izeneko taldea osatu nuen.

Telefonoa hartuta hasi nintzen guztiei banan bana deitzen: "Hara, Jone Larrañaga naiz, kazetaria; ezagutuko nauzu, segururik: Pilar eta Moisesen alaba. Kontua da Andoaingo kontu zaharrei buruzko aldizkaritxo bat prestatzen ari garela eta..."

Ezezko erantzunak jaso nituen, ez pentsa. "Nik uste beste jende tipu bat behar duzula, e...", batzuek eta "guk ezer kontatze korrik

ez daukagu-ta", bestetzuek. Baina eskerrak badiren komplexuak astindu eta edozertarako prest jartzen direnak ere: Joxepa Ormaetxeak, baietz; Mikela Ansa, baietz; Miren Zarragak ere, baietz; Joxemari Amutxastegi, Miguel Amas, Esther Arrieta...; dozenatik gorako kuadrila osatu genuen azkenean!

Hileko lehenengo larunbateko goizeko hamaiketean, kontzejupean. Hori izan dugu hitzordua hemezortzi hilabetez. Eta hemezortzi hilabetetan igo ditugu batera udaletxeko eskilarak, bigarren solairuko bilera gela izan baitu sorleku Atzoko Andoain eta andoaindarrak aldizkariak. Mahaiaren bueltan eseri –lehen egunean hartutako leku berean jarri zarete guztiak, hilabetea joan hilabetea etorri– eta memorian gordeta zenituzten oroitzapenei hautsa kentzen aritu zarete suelto. Gertakari edo izen bat aipatu orduko arrapaladan etortzen zitzaizkizuen burura kontatzeoko moduko istorioak eta hitza ezin harturik ibili zarete sarri askotan. (Eskerrak Miguelek ordena piska bat jartzen lagundu didan, bestela grabagailuak ezin izango zuen guztia irentsi...)

Aritu gara eskolaz, erlijioaz, jolasez, festez... Kontatu diguzue nolakoa zen Andoain, nola bizitu zenuten garai hura –garai latz hura–, eta hustu dituzue barrenak. Hainbeste esan duzue bizitaz...! Munduko unibertsitate sonatuenean ere ezingo litzateke hainbeste ikasi. Tamainako masterrik ez dute inon eskaintzen.

Eta halako masterrari halako katedradunak:

Joxe Eizmendi:

Besteak beste taxi gidaritzan eta zapatagintzan lizentziatua. Andoaingo historian cum laude doktoretua eta erlijio gaietan katedraduna. Erretiratu samar dabil aspaldian, eta bileretara ez da maiz agertu. Gurekin izan denean, ordea, kontakizun antologikoak eman dizkigu oparitan. Erlijioari buruz kontutakoak altxor preziatu moduan gorde ditugu kasetean, betirako.

Miren Zarraga:

Inork baino hobeto eman lezake bizitzaren gordintasunari buruzko lezioa. Ume garaietan asko sufritutakoa, utzi digu irakaspen ederra: une latzenek ere ikasteko balio izan dute eta bizitzari umorez egin behar zaio aurre.

Maria Esther Arrieta:

Eskola zaharreko ikasle fina. Umetan ikasitakoak errenkadarrenkadan botatzeko gai da oraindik. Kantu eta kontuetan aditua. Gaisotasun txar batek erresidentziara eraman zuen artean oparitu zigun sail ederra.

Bixente Olano:

Panadero eta herri jakintzako doktore ilustratua. Euskaltzale eta tradiziozalea. Mintzagai genuen gaietarako liburu hau edo hura propio aukeratu eta besapean ekarri izan du bilere-tara. Solaskideen kontakizunak datu eta dataz jantzi ditu.

Joxemari Amutxastegi:

Gertakari bitxi -eta berde samarren- kontalari espezialista. Gitarra jole eta adar jolea. Arnasa hartzeko maiz izan duen zailtasunik ez du konferentziante lanetan aritzeko.

Miguel Amas:

Klasera hutsik egiten ez duen irakasle prestua. Ikasleak aztoratzen direnean ordena txukun jartzen dakiena. Herriko gaietan aditua eta kirol eta jai kontuetan espezialista. Erretorika bikainekoa.

Joxemari Olazabal:

Behartsuen aldeko programetan buru-belarri aritzen dena. Cum laude tituluak baditu langileriaren aldeko borrokan, boluntariotzan eta herrigintza arloetan. Sintesi gaitasun handikoa, estimu handitan hartu dugu hileroko aztergaia kokatzen eta hari bere neurria jartzen egin duen lana.

Iñaki Arregi:

Unibertsitateko administrari ilustreena. Herriko historia biltzen duen artxibo oso-oso baliotsua du osatua. Hango materiala arakatu eta gaia ondo prestatuta ekarri du hileroklasera. Izugarri erraztu digu lana.

Mikela Ansa:

Jakinduria handikoa izan arren, solaskide apala. Baserrian jaioa, nekazal arloko gaietan dago espezialduta. Klaseetara txintxo-txintxo joaten den irakasle fina.

Joxepa Ormaetxea:

Atzoko Andoaingo eta andoaingarren unibertsitatean gogo biziz parte hartu duen partaidea. Zain-zain egon izan da eskola eguna noiz iritsiko. Askok eskertu du Joxepak unibertsitateko kideen konpainia, eta askok eskertu dugu guk berea.

Imanol Egibar:

Udal administrazioan espezialdua, udaletxe barruan etxean bezala mugitzen den irakaslea. Xehetasunez eman digu hango eta herriko kontuen berri.

Loren Navarro:

Bere bizitzako gertakariak pelikula baten moduan ikusteko gai den andereño atsegina. Gerra aurrekoak eta ostekoak hitzaldi ederretan jakinarazi dizkigu. Oso detailista "unibertsitate-kanpora ere.

Roke Ansa:

Herri jakintzan doktore baina hizlari apala. Euskaltzale eta bertsozale amorratua. Prosan ezezik bertsoetan ere eman izan dizkigu eskolak.

Bixente Huizi:

Kirolari eta kirolean aditu. Boxeoa, futbola, korrika... guztiak ezagutzen ditu gertutik, teoriarik bezala baita praktikan ere. Espezialduta dagoen gai hori jorratu genuenean, baina, pasa klasera etortzea! Beste aitzakiaren batekin prestatuko dugu saioa, lasai.

Patxi Irizar:

Huizi espezialistaren parean bai Garro baserriko semea! Kirolean aditu eta baserri gaietan doktore. Etorri izugarrikoa, euskara izugarri aberatsez eman dizkigu eskolak.

Joxe Manuel Erkizia:

'Fitxatutako' azken irakaslea. Gogoz hartuko zuen lanbidea gure unibertsitateak azkarrago eskeini izan balio. Berandu izan genuen, baina, haren jakituriaren berri. Gutxitan izan dugu gure artean baina estimatu dugu haren ekarria.

Gure unibertsitatean lortutako master tituluak ez du balio akademikorik, ongi dakit hori. Baina ondo dakit, baita ere, herri jakintza ez lukeela inork hobeto irakatsiko. Bihotzetik mila esker guztioi!

A
T
Z
O
K
O

Andoain

eta andoaindarrak

XX. MENDEAREN
LEKUKO

Egileak:

Joxe EIZMENDI JAUREGI
Bixente OLANO OTEGI
Miren ZARRAGA PAGOLA
Loren NAVARRO HOMBRADOS
Josepa ORMAETXEA MUJIK
Mikela ANSA GOENAGA
M^a Esther ARRIETA LIZARRIBAR
Iñaki ARREGI MORAZA
Jose Mari OLAZABAL IÑURRITA
Imanol EGIBAR JUANENA
Jose Mari AMUTXASTEGI ARANZABAL
Roke ANSA GOENAGA
Migel AMAS EGIBAR
Jose Manuel ERKIZIA URIA
Bixente HUIZI ZUÑIGA
Patxi IRIZAR ZARAUZ

Zuzendaria:

Jone LARRAÑAGA RODRIGUEZ

Erredakzio taldea:

Amagoia MUJIK TOLARETXIPI
Agurtzane ORMAETXEA ETXEBERRIA
Xabier LASA BERGARA
Jone LARRAÑAGA RODRIGUEZ

Diseinugile eta moldegileak:

Maddi TRUTXUELO GARCÍA
Eva GARCÍA MAGRIÑA

Irarkola:

SORTU Grafikagintza
(Zizurkil)

Argazkiak:

Manu MUJIK LASA
Xabier UBEDA GOIKOETXEA
KUTXA fundazioaren fototeka
Andoaingo Udal Artxibategiko fototeka
Bilduma partikularrak

Argitaratzailea:

© Manuel LARRAMENDI Kultur BAZKUNA
ISSN: 1139-7497
Lege gordailua: SS-1594/98

Kudeatzailea:

Xabier Irisarri Etxeberria

Babesle eta eragilea:

ANDOAINGO UDALA
Euskararen Normalkuntzarako Lansaila

Euskararen Normalkuntzarako batzordeburua:

Gabino AGUDO PALACIOS

Euskara Lansailleko arduradun:

Patxi BAZTARRIKA GALPARSORO

1998. urteko abendutik 2000. urteko ekainera
bitartean argitaratua
Hemezortzi zenbakiz osaturiko sorta (0-17)